


Razmik Panossian, armeniarra, diaspora gaietan aditua

“Armeniar diasporan ez dute armenieraz hitz egiten”



Zaldi Ero

Bost bat milioi lagunek osatzen dute armeniar diaspora. Armenian bertan, bi milioi eta erdi dira. Razmik Panossian armeniar jatorrikoa da, diasporan sortua. Unibertsitate irakasle jardun du Londresen eta Toronton. Armeniar diasporari buruzko gaietan aditua da. Gasteizen izan zen uztailaren 14ko astean, Euskal Gizataldeen III. Mundu Biltzarra tarteko eta hantxe erantzun zituen *Berripaperaren* galderak.

Berripapera: Zertan da armeniera diasporakoen artean?

Razmik Panossian: Zuzen esateko, diasporan askok galdu egin du hizkuntza, gazteek bereziki. Ez dute armeniera hitz egiten, tokian tokiko hizkuntzak baizik: Frantzia, frantsesa; AEBetan eta Erresuma Batuan, ingelesa...

B.: Beraz, armenieraz jakiteak ez du garrantzirik diasporan?

R. P.: Duela 30-40 urte jendeak esango zuen oso garrantziko zela; alegia, diasporakoek ere armenieraz jakin behar zutela. Baina soziologiak dio hizkuntza diasporaren ezinbesteko ezaugarri jartzeak diasporarik gabe utziko gintuzkeela. Beraz, bihurria da kontua.

B.: Estandaraziturik dago armeniera?

R. P.: Armeniera klasikoa bat da denentzat. Armeniera modernoak bi dialekto ditu, mendebaldekoa eta ekialdekoa. Armeniako armeniarrek ekialdeko dialektoa hitz egiten dute

batik bat; diasporakoek, mendebaldekoa. Elkarri ulertzen diote, baina arraro egiten du. Ezberdina dute ortografia eta ahoskera, baina bat bera dute alfabetoa, eta hizkuntzaren muina ere bera da.

B.: Zer diozu erabileraren gainean?

R. P.: Sinboloaren indarra du hizkuntzak. Eguneroko hizkuntza izateari dagokionez, diasporan ez da hain garrantzitsua. Armenian, jakina baietz, armenieraz hitz egiten dute denek. Armenieraz eta errusieraz.

B.: AEBetan ere euskara eguneroko hizkuntza izan zuten lehen belaunaldiak, baina aspaldi galdu zuen gure hizkuntzak estatus hori...

R. P.: Guri dagokigunez, posta elektronikoa gure hizkuntzari kalte egiten ari zaio. Ez dago armenierarako teklatu bat ere –teklatu estandarrik esan nahi dut–, eta, ondorioz, jendea idazten hasten denean zoratu egiten da, eta ingelesera pasatzen da, edo frantsesera. Edo armenieraz idazten du baina latindar alfabetoaren arabera, hau da, armenieraren berezko alfabetoari uko eginda...



Zaldi Ero



Razmik Panossian



2. PERTSONAJEA:

Pierre Loti

LABURRAK:

• *Literatura*

Unibertsala

bildumako titulu berriak

• Diasporaren Batzarra

AGENDA:

• Abentura Liburuen

Biltzarra azaroan



• Dirulaguntzen

deialdiak

• Lehen aldiz, OCR sistema


euskararentzat



EBPNren udaletako

garapena aztergai

laburrak



Literatura Unibertsala bildumako titulu berriak

Literatura Unibertsala bilduman beste liburu bat plazaratu dute: *Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean*, Raymond Carverren lana, Koro Navarrok euskaraturik. Abuztuko *Berripaperaren* alean bildumako hurrengo liburuak aipatu genituen eta, oraingoan, 2003an esleitu direnak jakinarazteko moduan gara. Besteak beste, Wilkie

Collins-en *Moonstone*, Nagib Mahfuz-en *Zuqaq al-Midaq* (Mirarien karrika) eta Stendhalen *La chartreuse de Parme* ageri dira zerrendan.




Diasporaren Batzarra

Euskal Gizataldeen III. Mundu Batzarra egin zen Gasteizen uztailaren 14tik 18ra. 150 lagun bildu ziren bertan, 19 herrialderen ordezkari. Aurreko lau urtean egindako lanaren balantzea egin zuten diasporako ardu-

radunek eta hurrengo lau urteetarako egitasmoak bideratu. Diasporan bizi diren gazteen egoera izan zen batzarraren aztergai nagusietarik, euskal etxeetako arduradunek nahi baino gutxiago jotzen baitute belaunaldi berrietako gazteek bertara.

agenda

Abentura Liburuen Biltzarra azaroan



Abentura Liburuen Biltzarra egingo da azaroaren 13tik 15era Gasteizko Goiuria Jauregian. Haur eta Gazte Literaturaren aldeko Galtzagorri Elkarteak antolatuta du eta Emilio Pascual irakasleak egingo du sarrera hitzaldia. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Patxi Zubizarreta, Teresa Colomer, Teresa Duran, Joanes Urkixo eta beste hainbat lagun ere izango dira hizlari. Informazio gehiago, Galtzagorri Elkartearen, 943.471487 telefonoan.

pertsonajea

PIERRE LOTI

Ramuntcho, aurtengo pastoralaren gai



Louis Marie Julien Viaud, Pierre Loti, Ramuntcho eleberriarren egile izan zen. Hain zuzen, gai horixe hautatu dute Iduze-Mendiko bizilagunek aurtengo pastoralaren egiteko, Pier Paul Berzainen egokitzapenaren arabera.

Julien Viaud (baina Pierre Loti, askoz ezagunago ezizenez) idazle eta itsas armadako soldadu frantziarra 1891n etorri zen lehenbiziko aldiz Euskal Herrira, Javelot

itsasontziko agintea hartu zuenean, Bidasoako muga zaintzeko lanetan. Ordurako, ibilbide literarioaren gorenean zegoen Loti. Hainbat lan idatzi eta argitaraturik zituen: *Aziyadé* (1879), *Konstantinoplan giroturik*; *Le Mariage de Loti* (1880), *Tahitin*; *Pêcheurs d'Islande* (1886); eta *Madame Chrysantème* (1887), Japonian. Bistan denez, Pierre Lotik urruneko lurraldeetan girotu zituen lan guztiak ere, hau da, itsas armadako soldadu bisitatu zituen lekuetan. Paradisu galduren bila jo zuen idazleak paraje horietara, exotismo bila, eta Euskal Herria ere arestian aipatu leku horiek guztiak bezain exotiko begitandu zitzaion.

Azkainen zebilela, Lotik adiskide egin zuen pilotari bat. Honek, arre-baren historia kontatu zion, moja joan baitzen aski egoera ez ohikoa tarteko. Pilotariak kontatu zionetik sortu zen *Ramuntcho* eleberria, Ramuntxo pelotari eta kontrabandozalearen eta Gaxuxa neska gaztearen maitasun istorioa baita.

Nobelaren arrakasta erabatekoa izan zen. Harrezkero, hiru film egingo ziren lanaren gainean, eta hainbat antzerki lan ere egingo ziren. Tartean, Toribio Altzagak egingo da. Aurten, berriz, pastoralaren itxura harturik itzuli da *Ramuntcho*, Iduze-Mendiko lagunak bikain antzezturik.



DIRULAGUNTZEN DEIALDIAK 2003

Euskarazko komunikabideentzako dirulaguntzak

Komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen agindua irailean argitaratu da.

Horretarako, guztira, hiru mila zazpiehun eta berrogeita hamasei mila hirurehun eta hogeita hamabost (3.787.693,00) euro erabiliko dira.

Dirulaguntza-gaiak multzo hauetan banatu dira:

1. A multzoa: Eguneroko prentsa:

A.1 Multzoa: Euskararen esparru geografiko osoko argitalpenak, hots, tiradaren %25etik gora, gutxienez, argitalpena kaleratzen den lurraldetik at banatzen dutenak.

A.2 Multzoa: Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko prentsa. Hots: herri, udalherri edota eskualdeko prentsa, tiradaren %75 edo gehiago argitaratzen den lurraldean bertan banatzen dutenak.

A.3 Multzoa: Euskararen presentzia esanguratsua ziurtatzen duten erdal egunkariak.

2. B multzoa: Bestelako maiztasuna duten argitalpenak:

B.1 Multzoa: Informazio orokorreko aldizkariak. Euskararen esparru geografiko osoko argitalpenak, hots, tiradaren %25 gutxienez argitalpena kaleratzen den lurraldetik at banatzen dutenak.

B.2 Multzoa: Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko argitalpenak. Hots: herri, udalherri edota eskualdeko prentsa, tiradaren %75 edo gehiago argitaratzen den lurraldean bertan banatzen duena.

B.3. Multzoa: zientzia arloko, pentsamendu- eta zabalkunde-aldizkariak, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal komunitateei zuzendutako euskarazko argitalpenak.

B.4. Multzoa: haur eta gazte aldizkariak

3. C Multzoa: Euskarazko irriatiak.

4. D Multzoa: Euskarazko toki-telebistak .

5. E Multzoa: Euskarazko on-line argitalpenak.

Deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintzak eta dirulaguntzak esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak deialdian bertan azaltzen dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara deitu ahal da. Euskara Sustatzeko Zuzendaritza 945 01 81 11

Euskararen sustapena teknologia berrietan

Agindu honen xedea euskararen erabilera eta presentzia informazio eta komunikazioaren teknologia berrietan sendotzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen agindua irailean argitaratu da.

Horretarako, guztira, 900.000,00 euroko zenbatekoa jarri da:

Indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta dagokion erroldan inskribaturiko informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien arloan diharduten pertsona juridiko pribatuek eskatu eta eskura ditzakete agindu honetan ezarritako dirulaguntzak.

Dirulaguntza-gaiak honako hauek izango dira:

1.- Euskararen ondarearen informazioa digitalizatu eta zabaltzeko egitasmoak.

2.- Aisialdirako ekoizkinak: euskarazko CD-Romak, bideo-jokoak, ordenagailu bidezko jokoak,....

3.- Internet-en bidez euskarazko zerbitzuak, baliabideak eta produktuak eta edukiak gizartera zabaltzeko egitasmoak.

4.- Hizkuntzen teknologietan euskara integratzeko proiektuak.

5.- SOFTWAREA euskarara lokalizatzea edota euskaraz sortzea.

Agindu honetan ezarritako dirulaguntzak lehiaketa bidez emango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara jo. 945 01 81 11



Lehenbiziko OCR sistema euskararentzat

Abian da euskararentzako lehenbiziko OCR sistema Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenari esker. Lanabes informatiko honek karaktereen ezagumendu optikoa egiten laguntzen du, hau da, gaur gero posible da euskarazko testua eskaneatzea, eta sorturiko irudia ohiko testu prozesatzaileek ezagutzea.


OCR sistemek (Optical Character Recognition) punturik puntu ezagutzen dituzte karaktereak eta, ondoren, barneko algoritmoen bidez, erabaki, banaka-banaka, zein karaktere den. Jarraian, zuzenak diren karaktere-multzoak osatzen dituzte eta aldiro-aldiro egiaztatzen dituzte. Azkenik, probabilitate handienak oinarri hartuz eta barne-hiztegiarekin konparatuz, hitzak proposatzen dituzte.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz, Elekak, hizkuntza ingenierritza emana dagoen etxeak, garatu duen programa Omnipagere-ri eta 12 bertsioaren barruan integratzen da, bai eta Windows Word 2000/2002 eta Mac Word 2001 sistemetan ere. Horrez gain, OpenOffice.org-erako bertsioa ere, Windows zein Linuxerako, eskuragarri dago.

Orain artean, euskaldunek OCR softwarea erabili dute, baina gaztelania hiztegidunak eta, ondorioz, ezagumendu oker ugari gertatzen zen. Adibidez, "energia" hitza euskaraz erabili arren, "energía", azentu eta guzti, zuzentzen zuen sistemak.

OCR bertsio hauek guztiak doan jaitsi daitezke honako url honetatik: www.euskadi.net/euskarara_soft

Omnipage-ri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, berriz: www.scansoft.com/omnipage helbidean.



Euskararen Aholku Batzordean EBPNren udaletako garapena aztergai




Guztira 40 herri-erakunde dira (udalak nahiz mankomunitateak), jadanik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen ari direnak. Orotara, EBPNk 85 udaletan izango du eragina. Biztanleriari dagokionez, EBPN hedatuko den udalerrietan 904.206 biztanle bizi dira eta horietatik 275.739 euskaldun dira. Hau da, EAEko biztanleen %43,1era iritsiko da EBPN eta EAEko euskaldunen %44,3rengan izango du eragina Plan Nagusiak.

anitzeko plan estrategikoa eta lehen urteko kudeaketa plana onartuta eta abian dute jada. Beste hogeita zazpi erakundek, aldiz, (21 udalek eta sei mankomunitatek edota udal-elkartek) urtea bukatu baino lehen plana onartzeko konpromisoa hartu dute eta hortaz, 2004an EBPN martxan jartzeko eman beharreko urrats desberdinak ematen ari dira, bakoitza bere neurria. Hori horrela, 13 dira EBPN martxan dituzten erakundeak, beste hamahiru prozesua hasi eta lanean ari direnak eta 14 erakundek, aldiz, eskaera egina dute irailean lanean hasteko.

Horiexek dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako EBPNren Jarraipenerako teknikariek plazaratutako ondorio nagusiak Euskararen Aholku Batzordearen Erabileraren Batzorde-atalak, uztailearen 23an, egindako bileran.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenaren nondik norakoak izan ziren bileraren abiapuntua eta ardatza.



Eremu geografikoa kontuan izanik, EBPN Gipuzkoan, Bizkaian eta neurri txikiagoan Araban ere zabaldu da. Laburbilduz, EBPN garatuko dituzten erakundeak EAEko hiru lurraldeetan, 15 eskualdetan eta 85 udaletan kokatzen dira. Geografikoki EBPNren hedapena nabaria ezin uka daiteke, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 20 eskualde eta 250 udalerrri dira guztira.

EBPN garatzen ari diren erakundeak prozesuaren urrats desberdinetan daude. Hamahiru erakundek (12 udalek eta mankomunitate batek) urte

EBPN

EBPN udaletan (2003-7-29)

ESKAERA	• 40 ERAKUNDEK																				
HEDAPENA	• 3 LURRALDEETAN • 15 ESKUALDEETAN • 85 UDALETAN																				
BIZTANLERIA	• 904.206 BIZTANLE (EAEko biztanleen %43,1) • 275.739 EUSKALDUN (EAEko euskaldunen %44,3)																				
EREDUAK	<table border="0"> <tr><td>• A</td><td>22 udal</td></tr> <tr><td>• A1</td><td>6 "</td></tr> <tr><td>• B</td><td>4 "</td></tr> <tr><td>• B1</td><td>1 "</td></tr> <tr><td>• B2</td><td>8 "</td></tr> <tr><td>• C</td><td>9 "</td></tr> <tr><td>• C1</td><td>4 "</td></tr> <tr><td>• C2</td><td>5 "</td></tr> <tr><td>• D</td><td>25 "</td></tr> <tr><td>• HIRIBURUA</td><td>1 (Bilbao)</td></tr> </table>	• A	22 udal	• A1	6 "	• B	4 "	• B1	1 "	• B2	8 "	• C	9 "	• C1	4 "	• C2	5 "	• D	25 "	• HIRIBURUA	1 (Bilbao)
• A	22 udal																				
• A1	6 "																				
• B	4 "																				
• B1	1 "																				
• B2	8 "																				
• C	9 "																				
• C1	4 "																				
• C2	5 "																				
• D	25 "																				
• HIRIBURUA	1 (Bilbao)																				

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

 Euskara

 Gaztelania

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

kodea:Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

